


IZARRA
ANTZERKI-
SALLA

II.g. zenbakia



MANUEL RECONDO

GIXATXARA

ATAL BATEKO ANTZERKIA




DONOSTIA'N
MARTIN, MENDI Y C. S. ZEN ETXEAN
Etxebarrieta, 14, leku goian

1921

Oginaean 5

ATV
31399



11.70345
F. 74302

ARC
31399

MANUEL REKONDO

GIXATXARA

ATAL BATEKO ANTZERKIA



DONOSTIA'N
MARTIN, MENA TA COMPAÑIA'REN ETXEAN

1921

MARINER REKOMEND

ΑΙΓΑΙΟΝ ΤΑΞΙΔΙ

ΕΛΛΗΝΙΚΑ ΕΙΔΗΣΤΑΤΙΚΑ ΚΑΙ ΙΔΙΑΙΤΕΡΑ ΣΧΟΛΙΑ



ΕΛΛΗΝΙΚΟΣ
ΠΑΙΔΙΑΣ ΚΑΙ ΝΕΑΝΙΚΩΝ ΛΟΓΟΤΥΦΟΣ

Ε. Δ. Α. Ε.



GIXATXARA

Atanaxi.
Antoni.
Mikela.
Maritxu
Bitori } Neska txikiak.

ANTONI

ANTO. (Bakarrik, sukaldean, tenazak maluz konpontzen) Ez dakit zeŕ egingo nieken tenaza zikin abei, neri erabiazitzeko soŕ tubak dira berdin-da. (Jo ondorean beriz aitua) Naiago nuke amar mila puska egingo balira likitx abek. (Ariká botatzen ditu. Gero berek aitua ta labetxora dijua an suba txukuntzera) Abek, abek lengoak daude orain ere bai. Pazienzia Jainkuak eman dezaidala, bai. (Apur batian egonda) Ta gure mari-patxara ȝnun ote dabil orain ere? Ezufak ausiko niozkake gogo aundiz; ura ere bizi da ta ni ere bai. Mundu onetan ez gera danok berdin bizi, ez. Utsa litzake ez baleki etxearen zenbat lan dagoen. Eta gero... leixuga preskua baño preskuago etorriko da, ez dakit zeŕ ta badakit zeŕ jakin duela esanaz. Oŕek ematen dit bada neri arabia. (Izketan ari dan bitartean jaŕiko ditu labetxoan eltxiak, eta beste onelako lanak egiten jaŕdungo da). (Baztarr batera begiratuaz) Bañan bederatziak dira ta ȝau alda buruzpidea? ¡Aa! Inguruan dala baneki, deituko nioke... Dana dala, deitzera noa beintzat, ia lotsatzen ote detan. Alperik izango da baña... ¡Ze demontre!, au geyegizkoa da (Ate-

tik edo leiotik deituaz) ¡Atanaxiiii! Kale guztiak aditu du ba, arīk ez dakit entzungo zuan baño. Dagola ořixe, lasaka tzara alain lasaka tzara, iñori odolak berotzeko soñtuba.

II ANTONI ta ATANAXI

- ATA. (Saftuaz) ¡Ene! Petronila'kin topatu naiz ta jařek zeukan umorea! Noski auñten, larohei urte iduki ařen, ez emendago etxian egoteko asmoan; juan biař omen du ez dakit nungo ta nungo eñomeitara; ura xelebria; ogei urtekaoa dirudi. Eta zutzaz ere nola oroitzen dala gero... (Mantila kendu ta tolestatuaz) «¿Antoni'k zer dio? — galdetu dit — Orain ere ura tximelean sendo egongo da?» (Antoni'ri) ¿Zer? ¿Gauř ere ez aldegu itzik?
- ANTO. Izketarako zu asko zera; lanerako ni.
- ATA. Emakumea, lanik egin gabe ezkera ba gu ere izaten.
- ANTO. Obeto egingo zenduke, beñiketa oyek utzi, ta eropa oyek kendu, ta emen egingo bazendu bear̄ dana.
- ATA. Banua, andrea, banua, ori besterik ez badezu. Jakin det bai neri ojuka jađun dezula atetik. Zuk oraindik audiogoak egin bear̄ dituzu jenio zital ofékin. (Bijua)
- ANTO. Ara, ez nazu geigo berotu bear̄. ¡Befitxu ori!

- ANTO. Esan det bada nik letxuga baño pŕeskogo etoriko dala. Bai etorire, bai. Ořen gibela idiarena izan biař du, ez emakumearena; ezin diteke emakumearena izan.

IV

ANTONI ta MARITXU

- MARI. ¡Ai Maria!
- ANTO. ¡Efneagariak! Pakean utziko ez diate.
- MARI. ¡Ai Maria!
- ANTO. Ara... ez dakit zeñ egingo nuken... ¿Zein da?.. Etoñ auñera.
- MARI. (Barenen) Amak esan dit muestra auek ikusi ditzala eta aukera egin da neuria artzera juteko.
- ANTO. (Zakar axtuaz) la nolakoak diran. Aukera audi-aundirik ez dauka beintzat; eta gero beti beragana juatea naiko du.
- MARI. Gañera esan dit amak oyek gustatzen ez bazaizka, eskatuko ditula muestra befiak Donostíra.
- ANTO. Bai, arñ Donostírik ekari zai egongo naun aizeari begira. Esayozuñaurki jongo naizela al badet.
- MARI. Esango diot. Agur. (Bijoas)

V

ANTONI

- ANTO. Auñki jongo naiz bai, Atanaxi'k lanak eginda. Onela gzein bizi? Obe litzake neskame izatea, bai. Naigo nun konbentu batean monja saftu baniz; lasaka poto onekin baño obeto biziko nitzan.

VI

ANTONI ta BITORI

- BITO. ¡Ai Maria!
- ANTO. ¡Mila afano...! ¿Zeñ da gauñ emen?
- BITO. ¡Ai Maria!

- ANTO. Segi aspeŕtu arte.
- BITO. ¡Ai Maria!
- ANTO. Esan beriz ere (Asafe) ¿Zein da of?
- BITO. Ni, andfea.
- ANTO. Atoz ba aufera (Badator).... ¿Ze beaf zendun?
- BITO. Amak esan dit ea afairik beař dun.
- ANTO. Esaiozu amari, geok ere afai asko gerala gu.
- BITO. Esan dit gañera gaufko afayak oso edefak eta meñekeak dirala.
- ANTO. Neska, alde egintzan emendik ni geigo berotu gabe. (Bijoá) Bañan, Atanaxi, ¿nun saŕtu aiz, neska? Onezkero amar aldiz aldatu nitzan.
- ATA. (Barendik). Banator emakumea, banator.
- ANTO. ¿Banator...? Makila batekin ekariko ziñuzket nik zu.

VII

ATANAXI ta ANTONI

- ATA. (Sartua). Bañan au emakume presatia. Asnasa aŕtzen ere utzik ez digu.
- ANTO. Asnasa.... asnasa aŕtuko dezu bai zuk, naiz besteari galerazi. Of konpon zaitea. Eltzea or dago, lanak ere bai, (Atanasi bere afopak lotzen ariko da) ta nai badituzu egin, ta nai badituzu utzi. (Bijoá).

VIII

ATANAXI

- ATA. Zoaz emakumea, zoaz; alegratzen naiz asko zu juteaz. Naigo det beintzat nik bakařik lan egin ez ori ondoan dedala. Ori jenio eŕnegatua du ordea ofek. Eŕnegazioz bere buru guztia galtzen du. Badirudi beti lana buruz gain daukala, eta ez da ala. (Eltzeari begiratu, aspoarekin aize eman ta txukuntzen du su-ondoa).

IX

MARITXU ta ATANAXI

- MARI. ¡Ai María!
- ATA. ¿Noñ da? Etorri auñera.
- MARI. Amak esan dit Antoni'ri esateko, nai badu etoriko zailola etxera neuria aítzera.
- ATA. Ez, umetxoña, aldatzera juna da; ez dakit atera dan etxetik. Dana dala, oraintxe dijoa bera zure etxera. Esan bada amatxori, berrialaxe an duela.
- MARI. Esango diot. (Itzetzen asj bedi).
- ATA. Zaudetumetxoña, zaude pixka bat, pastela emango dizuteta. (Bego, Atanaxi'k pastela ekafitza eman arte).
- MARI. Eskafik asko.
- ATA. Ez da zerri Maritxu. ¿Lan asko izaten aldu amatxok?
- MARI. Bai andria.
- ATA. ¿Eta zuk laguntzen aldiozu asko?
- MARI. Ni eskolara jutenaiz ofdea.
- ATA. ¿Eta josten ikasi aldezu?
- MARI. Pixkabat bai andria.
- ATA. ¿Eta zuk gero zeñ izan bear dezú, maistria ala telefonista ala zeñ?
- MARI. Ni..... jostuna.
- ATA. ¿Jostuna beaz? Edeki. Eskumuñak eman amatxori eta beste bat arte.
- MARI. Agur. (Bijoia.)

X

ATANAXI

- ATA. (Zapatak garbituaz.) Zapatak gañbitu ditzadan ia baztañ eta tresna danak txukindu ta gure eretxiña goxatzen degun.

XI

ATANAXI TA MIKELA

- MIKE. Egun on, Atanaxi. ¿Ari aiz lan da lan?
- ATA. Bai, emen ai naun pixka bat gauzak txukuntzen.
- MIKE. Antoni ikusi diñat of kalean bera juten, da korika onera etori naun taíte bat apórobetxatzeko ustean. Ez alden beriala etoriko....
- ATA. Ez, ez, etzeon bildurik. Jostunarengana juan den, eta neuria artu, ta aukera egin, denbora jongo zayon.
- MIKE. Sikiera jostunak umore ona jañiko balio...
- ATA. Ez neska, ari umore ona jañiko dion jostunik ez den. Bera efe ta bestei kiskali-erazteko beste bat etzeon munduan.
- MIKE. Izan ere oñen emakume erñegaturik ez diñat ikusi.
- ATA. Guztia-guztia baekike...
- MIKE. Aizan; bazekizkiñat ba nik erñegatuentzat oso beriso politak...
- ATA. ¿Bai? Ia ikusi, ikusi.
- MIKE. Ara zeñ politak.
Zitalkeriak kendutzen dio
Langiliari kemena
Zitala danak pipeftutzen du
Bere ingurun duena..
Iñun pakerik ez du topatzen
Ezin bizi da, jau lana!,
Preejitu ta kixkaiduko du zitalak
Aren ondoan dagona.
- ATA. ¡Aa zeñ egia!
- MIKE. Erñegazioz beterik zaude
Goiz, iluntze ta gabean,
Zipotz-zipotza soñtu ziñan zu
Zure ta gure kaltean.
Ereja on bat jañi nai nuke
Zu eta gure taranean
la onela guziok bizitzen geran
Zori on eta pakean.

- ATA. ¡Baña bai egoki daudela! Kantatu egin bearf gjinizken.
Kanta ditzagun.
- MIKE. Bai, g̃ta kantari ai gerala etoritzen baden Antoni? ¡Orduan
izango ditun zalapartak!
- ATA. ¡Bai zera, ura etori! Ez da beste bi orduan ere.
- MIKE. (Orduan ba kantaitzagun. *Iru dam oto* edo beste baten soñan,
kantatzen dituzte bi bersoak)
- ATA. Ekaŕtan, ekaŕtan papef ori; ufe goŕia bezelaxe gordeko
ditut befso abek.
- MIKE. Bai, bai, gorde nai baditun. Nik oraintxe etxera joan biaf
diňat.
- ATA. Emakume g̃zeren presa den?
- MIKE. P̃resik ez diňat baña bildur naun Antoni etoriko ote dan,
eta nik ezin diňat nere auŕean ikusi emakume ori
- ATA. ¡Bai zera, ura etori oraindik! Ez dago bildurik. (Saritzen da
Antoni ondo jantzia.)

XII

ATANAXI, MIKELA ta ANTONI

- MIKE. Ara nun dan bera.
- ATA. ¡Oí.....!
- ANTO. ¡Um....! Banuan bai bildura; orain ere beriketan. Au
bada buruzpidea....
- ATA. Aizu g̃zef falta zaizu? Lanak eginda edo egin gabe dauden
ikusi ta itzegin zazu ufenguan.
- ANTO. ¡Utikan...! (Saritu bedi)

XIII

ATANAXI ta MIKELA

- MIKE. Nik baniňan etoriko zan bildura.
- ATA. Bestetan ez den ofela etoritzen. Egingo nuke norbaitek
esan diola i emen agoala.

- MIKE. ¿Bañan ez alden entzun zeſ̄ esan duan? ¡Gozoa etori den orixe!
- ATA. Oituta naixion ni ořen txaŕkeriak entzuten. Eritan eta piperkieran ez dala, ez din uste lanik egin leikenik.
- MIKE. Baña ořen emakume zitala izatea ere baden...
- ATA. ¿Berak ez duala sufritzen uste al den? Ez gutxire gero... Baña onezker, ofela bearko din ořek.
- MIKE. Banian, Atanasi, banian, aldatuta datořenian emen topazten banau, makilakin jotzeko kapaz den ori-ta.
- ATA. Agur, ba, Mikela, ta naekenan arte.
- MIKE. Ori uřena etxetik iſtetzan dan arte. Agur. (Bijoia)

XIV

ATANAXI

- ATA. Ořek bakarik egon danean eŕnegaturik egin dituen lanak, nik kantari eta patxaran egin ditut. Eta ez konpendifitu bear... Gaňera ¡ořek egiten dituen kaliteak! Tenazak, balio ez dutela dauzka; aspoa, aizerik ia ematen ez duala; eskubilak, eŕdibitzen asiak. Eta oiek eŕdi-gaitz dirala, bere eŕabi-aldian, katilua eskuan badu, tira ta amar puska egingo du. ¿Zeſ̄ balio du ořen lanak? Naigo nuke egun guztian etori gabe oř kanpoan ibiliko balitz. ¿Nořk sořtu orientzat ainbat ontzi? Onezker, aurten bi dozena katilu ta baso autsi ditu. Laister da emen oraintxe, ta, noski, ařen lenengo diostesalbea eterita izango da, ta kantari asi bear det. (Kanta beza nai duan kanta bat)

XV

ATANAXI ta ANTONI

- ANTO. (Sartu bedi. Eltzekoa probatu ta kutxarea bota beza) ¡Puf....! ¡Jakiňa zegoen!
- ATA. Bai, bai, jakiňa zuk zeſ̄ egingo zenduan. Bañan gauza bat jakin bear dezu: ori ez dago txařa; zu zaude txařa, zu.

- ANTO. Gibel-aundi ori orain ere kantari ari ziñan.
ATA. Ez, negaf egingo det, zu efetxin zerala-ta.
ANTO. Ara, ez nazu berotu bearf ge?
ATA. Ez, ez. ¿Berotu? ¿Noiz gera gu otzak?
ANTO. Oztutzeko ez daukat lagun txarra ondoan.
ATA. Bañan ¿zeñ falta dezu? ¿zeñ lan topatzen dezu egin gabe?
ANTO. Ez det nai geiago zure auñean égon. (Gauza danak tira ta
bijoa gelara).

XVI

ATANAXI

- ATA. Sekulako mesedea egingo dezu; bai orixe beintzat. Ez dauka iñon pakerik. Ez dakit nik zeñ duen. Nai bezela bizi bearf luke eta daraman bizitza ondo erukarria da. Asko izaten dira ondo daudenean keja eta okeñago diranean lengoaren nalean.

XVII

ATANAXI ta MARITXU

- MARI. (Boa batekin). Ai Maria.
ATA. ¿Nor da? Aufera.
MARI. (Saftuaz). Ba, au Antoni'rena omen da.
ATA. Ara, Maritxu ¿emen al zera? Bai neska zintzoa dala Mari-
txu. ¿Beraz amak eman dizu au?
MARI. Bai, andrea, gure dendan utzi du-ta.
ATA. Ondo dala esajozu amari, ta eskarik asko.
MARI. Esango diot; agur,

XVIII

ATANAXI

ATA. Ez naiz aritzan. Ez da gauiko kontua; beti gera onela. Bere ernegaziozko bizitzak aztu-azitzen dio dena. Ara or non dagoen ezeriarako balio ez duela. Jainkoak bakañik daki zenbat liburu, eñosariyo eta guárdasol galdu dituen onezker... Ta gero, guztiaren kulpa nik det. Noan, noan. Eman egin beariko diot «boa» au. Baña juan baño len, entzun egi au: Askok uste dute, lana egiteko kopeta ilunez bizi bear dala; pozez ta alai ezin lanik egin litekela. Gezuña. Mundu ontan, alpeña ez da ondo bizi; lana egiteko aseñetzen dana ere ez. Lanean dagonean pozik dagona, ori bizi da ondo. Lan egin bear dezutenean, ez ernegatu Antoni bezela. Lan egin bear dezutenean, poztu Atanaxi bezela (bere buruagatik) ni bezela...

ZAPIA



EUSKALERRIAREN ALDE

La Revista EUSKALERRIAREN ALDE se titula «Revista de cultura vasca» y esa frase comprendía la idea que perseguímos y las esperanzas que abrigamos. Se ocupa exclusivamente de asuntos relacionados con el País Vasco; dentro de este campo abarca cuanto no se halle contaminado con la política pulpitante.

El esclarecimiento de la historia del País Vasco es uno de nuestros anhelos principales, y a llevar luz sobre tiempos pasados tienden con preferencia nuestros esfuerzos.

Pero no por eso vivimos momificados con la vista vuelta atrás. Tanto como atrás miramos adelante, y si con ahínco muchas veces dirigimos la vista al ayer, otras tantas la replegamos al hoy y la espaciamos al mañana. Queremos recuerdos, sí, pero también realidades y esperanzas.

Nos compete cuanto se relaciona con la vida de nuestro país: historia, heráldica, arqueología, viajes de extranjeros por Euskalerria, sus opiniones acerca de nuestras cosas, notas literarias, novela, poesía, música, crítica biografía, bibliografía, arquitectura, pintura, arte dramático,... Y, naturalmente, dedicamos atención especial a la lengua vasca, flor que marchita nos entregaron nuestros antepasados y que procuraremos entregar vivificada a nuestros sucesores.

Cuanto con el País Vasco tenga algo que ver nos interesa grandemente. Fuera de esta esfera de acción, nada nos atrae; dentro de ella nos apartamos respetuosamente tan solo de los problemas en que las pasiones ciegan y de los asuntos que no es posible rozar sin que saite la chispa odiosa de la discordia.

Euskalerriaren alde

ADMINISTRACIÓN
Calle de Puenterrabía, 14, bajo
SAN SEBASTIÁN

El subscriptor de EUSKALERRIAREN ALDE recibe puntualmente en su domicilio todas las secciones de que se compone la Revista; recibirá asimismo los números extraordinarios (1), suplementos, obras encuadrables, y toda publicación que la Revista costee con destino a sus suscriptores. A fin de cada año recibirá también, para cada tomo, detalladísimos índices, redactados por orden de autores y por clasificación de materias.

La suscripción anual en estas favorabilísimas condiciones importa 20 pesetas anuales, que la Administración las cobra por giro de una letra, si el interesado no las ha enviado antes en cualquier otra forma.

(1) EUSKALERRIAREN ALDE ha publicado ya cerca de una docena de números extraordinarios, de los cuales varios tienen más de 100 páginas hermosamente ilustradas. Los últimos son los dedicados al Congreso de Pamplona, y merced a esta Revista, sus suscriptores disponen de una síntesis exacta de todas las conferencias y cursillos, de la reproducción literal de todas las conclusiones, y de una amplia relación de cuanto en Pamplona sucedió con motivo del Congreso.

IZARA

Antzerki saia

Colección de comedias

AGERTUAK

1.* : <i>Jauregi-erotako astoa</i> . Alonso M. Zabala k asmatutako bakanitzeta. (N.º 1. Monólogo original de A. M. de Zabala)	0,50
2.* : <i>Uruti-ixeta</i> . A. M. Zabala k idatzitako antzerkin. Atal batekoa; ta gizonezkoak biskaritik egiteko. (N.º 2. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. M. Zabala)	1,00
3.* : <i>Melitona'ren bi sasarrat</i> . A. M. Zabala k idatzitako antzerkia. Atal batekoa ta gizonezkoentzat. (N.º 3. Comedia en un acto, para hombres solos, A. M. de Zabala)	1,00
4.* : <i>Mendibe'turen lariyak</i> . A. Larraitz'en antzerkia. Atal batekon, ta gizonezkoentzat. (N.º 4. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. de Larraitz)	1,00
5.* : <i>Utsi heario!</i> Deñoka'tar Goserio k euskeratutako antzerkia. Gizonezkoentzat. Atal batean. (N.º 5. Comedia en un acto, para hombres, traducida por Goseario de Deñoka)	1,00
6.* : <i>Neska'me berria</i> . Emakumezkoentzat bakanitik, atal bateko antzerkia. Deñoka'tar Goseario k euskeratua. (N.º 6. La criada nueva. Comedia en un acto para mujeres solas, adaptada por G. de Deñoka)	1,00
7.* : <i>Gizon bikaztak</i> . Gizonezkoentzat, atal batean. Deñoka'tar Goseario k euskeratua. (N.º 7. Comedia para hombres, en un acto)	1,00
8.* : <i>Tripa-Zoria</i> . Gizonezkoentzat, atal batean, Toribio Larea k eratutako antzerkia. (N.º 8. Comedia en un acto para hombres, por Toribio de Larea)	1,50
9.* : <i>Moroi jalara</i> . A. Larraitz'en antzerkia. Atal batekon, ta gizonezkoentzat. (N.º 9. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. de Larraitz)	1,00
10. : <i>Gane-ostatua</i> . Iruretagoyena'tar J. ren antzerkia. Atal batekoa, ta gizonezkoentzat. (N.º 10. Drama en un acto, para hombres solos, por J. de Iruretagoyena)	1,50
11. : <i>Giratxara</i> . Manuel Rekondo k egindako antzerkia. Atal batekoa ta emakumezkoentzat. (N.º 11. Sainete en un acto, para mujeres solas, por M. Recondo)	1,00

Antzerki oek guziak, Donostia'n, Leizaola'ren idaztitegian
(Garibay, 28) daude salgai.